

Lan eremuari dagokionez, lana bizitzeko era oso ezberdinak egonik ere, jaiegunen inguruko erabakiak hartzea gehienoi eragiten digun gaia da. Ohiko enpresa batean langileari edo enpresariari, enpresa komunitario edo kooperatiba bateko kideei edota inplikazio sozialengatik besterik ez bada, beste lan batzuetan (horiengatik soldata jaso edo ez) edo lanik gabe daudenei ere eragiten dio.

Euskal Herrian ohikoa izan da lan esparru propioaren aldarrikapenaren inguruan, zenbait festa beste batzuegatik ordezkatzeko saiatu izana. Horretarako, egutegi propioak kaleratzen dituzte erakundeek, baina baita sindikatu eta patronalek ere. Adostasun falta ez dut berez sintoma txartzat ikusten, gauzak bizirik daudenaren seinale baizik. Aniztasun horretan bizitzen ikasi behar dugun bezala, adostasun minimo batzuk ere egokiak direla ere pentsatzen dut, aldi berean. Adibidez, abenduaren 3an, gauza ezberdinak ospatuta ere, Hego Euskal Herri mailan behintzat, jai egun bateratu bat edukitzea beharrezko ikusten dut.

Gure kooperatiban, aldiz, beste pausu bat eman nahi izan dugu, 35 lan orduko jardunaldia ezarri ondotik, denon artean erabakitako egutegi bat egiten saiatu gara oraingoan. Argi genuen jai batzuk ordezkatu nahi genituela, baina, aldi berean, ezin genuela egin bizi garen jendartetik guztiz deskonektaturik dagoen egutegi bat. Horregatik, jai batzuk ordezkatu ditugun arren, beste batzuei esanahia bakarrik aldatu diegu, guretzat horietan dagoen gauza interesgarriari erreparatu. Beste batzuei izena besterik ez diegu aldatu, ados egon edo ez, jai horiek mantendu nahi genituelako. Mito eta erreferentzia propioak ere badaude horietako batzuetan, zuen esku begiztatzea.

Horrez gain, beste bi kategoria definitzeko beharra ere sentitu dugu. Gurea enpresa komunitario bat izaki, pertsona bakoitzaren urtebetetzea ere markatu nahi genuen, kideek duten garrantzia nabarmendu, eta egun horretan berarekin gaudela ospatzeko egunak izango dira hemendik aurrera. Beste alde batetik, [Stakhanov](#) egunak edo lanez ospatzeko egunak ere identifikatu ditugu. Egundorietan lan egiteko egunak izango diren arren, egunaren amaieran ospatu edo elkartzeko baliatu nahi ditugu. Zehazki hiru dira horrelakoak, [Talaios](#) bera sortu zen eguna, [OlatuKoop](#) Ekonomia Sozial Eraldatzailea Sustatzeko Sarea jaio zen eguna, eta nazioartean [mugimendu kooperatiboak ezarritako eguna](#).



Talaio koop
talaio.coop



Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig	Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig	Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig				
Urtarrila - январь							Otsaila - февраль							Martxoak - март										
						1	1	2	3	4	5							1	2	3	4	5		
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	6	7	8	9	10	11	12				
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	13	14	15	16	17	18	19				
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	20	21	22	23	24	25	26				
²⁹ ₃₀	³¹	25	26	27	28	29	27	28	27	28	29	30	31											
Apirila - апрель							Maiatza - май							Ekaina - июнь										
						1	2	1	2	3	4	5	6	7							1	2	3	4
3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11				
10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18				
17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25				
24	25	26	27	28	29	30	29	30	31	26	27	28	29	30										
Uztaila - июль							Abuztua - август							Iraila - сентябрь										
						1	2	1	2	3	4	5	6							1	2	3		
3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10				
10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17				
17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24				
³¹	25	26	27	28	29	30	28	29	30	31	25	26	27	28	29	30								
Urria - сентябрь							Azaroa - ноябрь							Abendua - декабрь										
						1	1	2	3	4	5							1	2	3				
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10				
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17				
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24				
³⁰ ₃₁	25	26	27	28	29	27	28	29	30	25	26	27	28	29	30	31								

ΙΛΙΕΓΝΙΑΚ
Urtarrilak 6: Etorkizuna eta utopiaren eguna
Martxoak 8: Emakume langilearen eguna - Terexkova eguna
Apirilak 13-14-17: Gagarin astea
Maiatzak 1: Langileen eguna
Ekainak 23: Udako solstizioa eta oparotasunaren eguna
Uztailak 31: Loiolako San Ignazio eguna
Abuztuak 15: Mari eguna
Azaroak 1: Samhain eta falta direnen eguna
Abenduak 3: Euskararen eguna
Abenduak 21: San Tomas eguna
Abenduak 25: Sol Invictus
*Egun bat herriko jailetan + 20 egun solte, edo 30 asteburuekin

ΒΥΤΣΕΒΕΤΕΤΖΕΛΚ
• Martxoak 16: Beñat
• Apirilak 5: Unai eta Yerny
• Maiatzak 1: Tolosa
• Ekainak 30: Gorka
• Urriak 6: Amaia

ΣΤΑΚΗΛΙΟΥ ΣΕΓΝΙΑΚ
lan eginez ospatzeko!
• Maiatzak 14: Olatukoop eguna
• Uztailak 1: Kooperatiben egun internazionala
• Urriak 17: Talaio sortze eguna

Aralar plaza 1.
solairuartea 2
26060 Oroseira-Errenteria
Tel. 943 013 297

Jaiegunetara bueltatuz, beharbada bitxiak zaizkizuen aldaketak topatuko dituzue gure egutegian, baina hori da gure egutegia, denok erabakia eta adostua. Bakoitzak berea egitea gustatuko litzaiguke, horrek esan nahiko bailuke, aukera hori behintzat badagoela zuen lan eremuan. Komunean ditugun jaiak ere elkarrekin ospatu nahiko genituzke, horregatik, "ohiko jaiak" ere agertzen direla ikusiko duzue. Bakoitzak beren interesen arabera, errepara diezaiola nahi dionari, baina, batez ere, pentsatu bakoitzak zuen inguruan zein liratekeen ospatu nahiko zenituzketen jaiak. Buruan irudi hori sortzeak berak, helburura gerturatzeko onak. Eguneroko inertziaren aurrean, ospatzen duguna zergatik ospatzen dugun pentsatzera eramaten gaitu eta gogoratu: zer ospatu, hori izan.

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)